

LONDRESERA BIDAIA

Donostia, 1986-IV-25

Jose Antonio Arana Mariija

Duela 82 urte, 1904.eko Apirilaren lehen egunetan, Londresera joan zen Azkue jauna British Museumen zeuden euskal fondoak ikustera eta Bonaparte Printzearen eskuizkribuak arakatzera. Antzerako helburuekin izan naiz aurtengo Apirilaren 8tik 10era Londresen eta hara hemen laburki lortutakoak.

Anglo-Basques Studies Society elkartearen burua den Txomin Idigoras eta nere lengusina bat, Carmen Ashman, izan nituen gidari. Elkardez esan behar euskarazko ikastetak ematen dituela Londresen irakasketa sare ofizialean txertatuz, hots, Inner London Education Authority (ILEA) hizkuntz eskolan. Eta Bonaparteren etxea aurkitu dutela hirian. Bost urte barru Printzearen heriotzaren mendeurrena ospatzerakoan, 1991 urtean hain zuzen, etxe honen inguruan ospakizunen bat egiteko asmoetan ari dira bai elkartekoak eta bai udaleko agintariak. Bonaparteri dagokionez, Londreseko Kensal auzoan dagoen Saint Mary Cemetery-n, Printzearen hilobia aurkitu genuen eta argazki batzu ere egin nizkion gure artxiborako.

Hamabi urte duela British Museum beste era batera eratu dute eta ordutik hona bertako biblioteka edo British Library izenekoak autonomia lortu du. Great Russell Street delakoan kokatzen dira biak oraingoz. Bertan agurtu nuen Margaret Johnson Head, Hispanic Section delakoaren zuzendaria, Euskaltzaindiaren izenean oparitxo bat emanetz. Gero, Apirilaren 10eko arratsaldean elkarrizketa luze bat izan nuen euskal gaietaz arduratzen den Geoffrey West jaunarekin. Euskal eskuizkribu eta liburuen saila ondo taiutu gabe dagoela esan zidan eta hiru urtetan bukatzeko lana hasia zela aitortu. Gure laguntza beharrezkotzat hartzen zuen eta Azkue Bibliotekarekin harremanak oso interesgarriak ikusten zituen. Beraz, Durangoko Azokara etortzeko gonbidatu nuen, Euskal Herriko argitaldarekin harremanak izateko eta bide batez gure biblioteka ere ikusteko. Honi ere oparitxo bat eman nion eta nahi dugun guztia mikrofilmatzeko aukera eskaini zidan. Hasteko, Mikoletaren *Metodo breve...* mikrofilmatzea eskatu nion, eta katalogoa amaitzen dutenean mikrofilmatuak bidaliko digute.

Londreseko almatzen handienak ere ikusi nituen, Harrods izenekoak hain zuzen, eta gauza harrigarriak ikusi nituen, tartean, salgai zeudelarik, Ortelius-en mapa originalak. Garestiak ziren benetan (ehun mila pezeta bakoitza) eta Mrs. S. D. Paessler andre zuzendariarekin hitz egin ondoren, beste baterako utzi nuen erosketa.

Canterbury-ko Unibertsitatea, eta Katedrala noski, bisitatu nituen. Unibertsitatean Europako mapa zahar bat erosi nuen, XVII. gizaldikoa. Oxfordeko Unibertsitatea eta bertako Bodleian Library ikusteko astirik ez nuen izan, baina lehengusu bati agindu nion harremanak bultzatzea Pierre d'Urte eta beste euskal idazle batzuren eskuizkribuen mikrofilmak lortzeko. Bertan dauden bertso paperak ere mikrofilmaturik lortuko ditugu dudarik gabe.